

Nafarroako Ubidearen finantziatorako hitzarmena onartu du Parlamentuak

Oraindik Espainiako Ministro Kontseiluaren oniritzia behar du indarrean sartzeko

Nafarroako Parlamentuak onartu egin zuen atzo Iruñeko eta Madrilgo gobernuek Nafarroako Ubidea finantzatzeko hitzarmena. Akordio hori indarrean sartzeko, Espainiako Ministro Kontseiluak oniritzia eman beharko dio orain.


Alberto Barandiaran / Iruñea

ATZO Foru Parlamentuan egin zen eztabaidaren ondoren UPN, PSN-PSOE eta CDNk alde bozkatu zuten, IU, EA eta NI abstentitu ziren, eta HB kontrako botoa eman zuen.

Iruñea eta Madrilgo gobernuek joan den ekainaren 21ean hitzartu zuten aurreakordioa. Testuak atzo foru legebiltzarren onespina jaso eta gero, orain Espainiako Ministro Kontseiluaren baietza behar du sinatua izan eta indarrean sartu ahal izateko.

Atzo onartu testuaren arabera, Estatuak ubidearen %60 ordainduko du, eta Nafarroako Gobernuak, berriz, %40. Agiria sinatu eta bederatzita hilabetera egingen dute Nafarroako Ubidearen lehen faseko lanen banaketa. Fase hori bederatzita urtetan burutuko dute, eta 58.000 pezeta gastatuko dituzte horretan. Bigarren fasea egiteko beste sei urte beharko dituzte, eta 24.000 milioi pezeta. Proiektuaren arabera, ubideak 57.000 hektarea ureztatuko balioko du, lan hori aurrekusten duen proiektuaren arabera.

Haatik, ez dago argi Ministro Kontseiluak hitzarmenari oniritzia emanen dion ala ez. Madrilak akordioa onartzear zuela behin baino gehiagotan aurreratu dute Nafarroako Gobernuak



Nafarroako Ubidearen hasierako lanak.

ARTXIBIKOA

ordezkariak, baina orain arte, Espainiako Ministro Kontseiluak behin eta berriro atzeratu izan du gaia. Hala espero ez zen arren, azkenean, Foru Parlamentuak Madrilak baino lehena eman dio baiezkora hitzarmenari.

Atzoko bilkuran, Nafarroako lehendakariorde Rafael Gurreak berriz ere esan zuen Madrilgo Gobernuak berehala onartuko duela hitzarmena eta «aurrerapauso kualitatibo» garrantzitsua izanen dela.

PSNko Jose Javier Sanchez Turrillasek, berriz, adierazi zuen «zalantza asko» dituela akordio hori onartuko denetz, ez delako gauza bera gauzak esatea eta

gauzak sinatzea. Ildo beretik jo zuen CDNko Juan Cruz Allik, eta gehitu zuen finantziarioa ez ezik, epaiek sortu arazo legalak ere konpondu behar direla.

Iuko Jose Miguel Nuñez adierazi zuen IU Itoizko urtegiaren aldekoa dela, baina «arduragabekeria» dela arazo legal latzak dituen proiektu bat finantzatzeko hitzarmena egitea. EAko Fermin Ziaurizek argudio berak erabili zituen.

Azkenik, HBko Patxi Zabaleta azaldu zuen ubidearen proiektuak ez daukala babes legalik, Nafarroaren interesen aurkakoa dela eta ingurugiro arazoak direla-eta HB horren aurka dagoela.

Koordinakundea: «proiektuaren beharrei ezin zaie aurre egin» • Bestalde, Itoizko Koordinakundeak atzo hedabideetara igorri prentsa oharren arabera, Daniela Gerstner ikerlariak Alemaniako Unibertsitatearen laguntzaz Itoizko urtegiari buruz egindako ikerketak erakusten du Irati ibaiak urtero 465 hektometro kubiko ur eramaten dituela presa eraiki duten tokira, eta ez 635 proiektu ofizialak dioen bezala.

«Horrenbestez, ezinezkoa litzateke proiektuak planteatzen dituen ureztaketa beharrei zein gizakien beharrei aurre egitea», azaltzen du Koordinakundearen agiriak. X

Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunerako plana erretiratu egin beharko du Nafarroako Gobernuak

PSN, CDN eta IUK Ongizate Departamentuak igorritako txostenaren kontrako jarrera iragarri dute

Erredakzioa / Iruñea

EMAKUMEZKOEN eta gizonezkoen arteko berdintasuna bultzatzeko egitasmoa erretiratu egin beharko du Nafarroako Gobernuak, zeren eta PSNk, CDNk eta IU alderdiek iragarri dute jada Gizarte Ongizate Departamentuak talde parlamentarioei igorritako txostenaren aurka daudela.

Egitasmo hori zen Nafarroako Gobernuak Ongizate departamentuaren eta Nafarroako Emakumeen Institutuaren aurtengo oinarrietako bat, baina badirudi filosofia aldatu egin beharko duela, taldeek berehala ezezkoa azaldu dutelako proiektua ezagututa.

PSNk eta CDNk, horrela, hamaika zuzenketa prestatu dituzte egitasmoaren zutabe nagusiak aldatzearen, baina horiek guztiak onartuz gero proiektuaren mamia bera aldatuko litzatekeenez, egoki iruditu zaie beste egitasmo berri bat eskatzea gobernuari.

CDNren ustez, gobernuak igorritako berdintasun planaren barruan ez dago konpromezu ekonomikorik, eta hori dela-eta, bertan planteatzen dena burutzeko gobernuaren «borondate falta» dagoela uste dute erregionalistek. CDN alderdiak ere berdintasunerako urratsak proposatzen ditu: Emakume Zinegotziak, emakume taldeen bultzada, lan merkatura sartzeko ozto-

poak gaintzea, eta tratu txarrak soluzionatzeko zerbitzuak sortzea. Izquierda Unida taldeak, bere aldetik, osoko zuzenketa aurkeztu du Nafarroako Parlamentuan. IUren ustetan, gobernuaren egitasmoa «teorikoa eta azalekoa» da, eta kritikatu du errealitateari buruz inolako txostenik ez izatea.

IUK zehazten duenez, bertan ez da aipatzen emakumeen aukerak gizonezkoekin berdintzeko inolako aldaketarik, ez bada PFEZ zergan kenkari bat agertzea etxeko lanengatik. IUren ustetan, neurri hau insolidarioa da etxeko lanak ordaintzeko ahalmena ez duen emakume askorekiko. Halaber, egitasmotik kanpo gelditu dira emakume tal-

de handiak, hala osasun arazoak dituzten emakume helduak nola hirietako emakumeak. Ebaluaketak eta segimenduak ere hutsune handiak ditu, taldearen ustetan. Horregatik, egitasmo hau gobernuari itzuli eta aipatu hutsuneak kontuan hartuko litzatekeen berdintasunerako plan baten alde egingo du IUK.

Bestalde, atzo goizean ezagutarazi zen Nafarroako Emakumeen Institutuaren iazko memoria. Datu ofizialen arabera, 184,6 milioi pezeta gastatu zituen, gehienak dirulaguntzatan.

Memoriaz gain, Institutuak emakume eta gizonezkoen arteko aukera berdintasunaren aldeko hiru gida aurkeztu zituen atzo. X

Mugapenik gabeko eraikuntzak salatu ditu Hiriburu Maita udal taldeak

Epe laburrean auzapezak 4.000 biztanletarik 5.000ra pasatu nahi duela salatu dute

Hur Gorostiaga / Hiriburu

HELDU diren hilabeteetan Hiriburuk —Baiona ondoko herriak— orain arte zuen lasaitasuna galtzeko lanjera duela salatu zuten atzo Alain Iriartek, Larroque eta Bakardatz oposizioko hautetsiek atzo eskainitako prentsaurrekoan.

Hiriburuko lurraldeen sailkapenak aldatuz, epe motzean Pierre Mendiburu auzapezak zuzendutako Herriko Etxeak eraikuntza berrien bidez Hiriburuko biztanleria 4.000tik 5.000ra goititu nahi duela salatu zuten hiru hautetsiek, eta «mugapenik gabeko eraikuntzak» salatu.

Lurraldeen sailkapen aldaketa Castelnau-Harretxe auzunean eta Alminoritzen izanen da. Lehen auzunea, gune natural izatetik (ND) eraikigarri izatera pasatuko da (II NA), eta bigarrena, berriz, eraikigarri izatetik berehala eraikigarri izatera (I NA). Gisa horretan, udal hautetsien arabera, 1.350 biztanle gehiago sar litezke Hiriburun epe motzean.

Alain Iriartek atzo salatu zuenez, «Herriko Etxeak inorekin mintzatu gabe hartu du erabakia». Inkesta publikoak, aldiz, Castelnau-Harretxen den oihana desagertaraztea lanjerosa izaten ahal dela ohartarazi du, «arbolak kentzen badira urak fiteago eroriko baitira gain behera», Larroquen erranetan.

Alminoritz eta Ametsondo auzoak, berriz, «autobidez inguratuak» izanen dira, bertatik pasatzen baitira alde batetik A-64a (Bordelerantz) eta A-63a (Pauerantz). «Gainera, autobidea 2x2 izan ordez 2x3 egiteko proiektua dago, oraino arazo gehiago sortuko dituen», salatu zuten hautetsiek. Gisa berean, gaineratu zuten, bi auzoen artean bidegurutze berri bat eraikitzeko asmoa dute, eta Ametsondoko auzoa gehiago urbanizatuko du horrek.

Mendibururen eta Herriko Kontseiluko buruen asmoaren kontra, hainbat elkarte sortu dira herrian jada, eta 280 herritarrek beren protesta agertu dute administrazioaren aitzinean.

Ondoko egunetan Herriko Kontseilua berriz bildu beharrenez, «herritarren galdeak entzun eta erabakiak denekin mintzatzu» har ditza-la galdegin zion atzo Alain Iriartek azken 25 urteotan herriko auzapez duten Mendibururi. X